



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Antton Valverdek *Gaua, ausentziaren itzala* bere azken lana eskainiko du bihar Arriaga Antzokian

- Bere ahots goxoa eta pianoa jotzean duen sentsibiltatea agerian geratuko dira; emanaldian Jurdana Otxoa (biolina), Iván Carmona (biolontxelo) eta Joxan Goikoetxea (akordeoia) musikariek lagunduko dute.
- Ikusentzuleek Valverdek Gandiaga edota Lauaxeta bezalako euskal poeta handiak dotoreziaz musikatzeko duen gaitasunaz gozatuko dute bihar ostiraleko kontzertuan (urriak 8, 19:30ean), non Harkaitz Canoren eta Xabier Leteren hitzak ere abestuko dituen, besteak beste.

Bilbo, 2021eko urriaren 7a. – Arriaga Antzokiak euskal kulturaren erreferente den artista handiaren emanaldia eskainiko du bihar (ostirala, urriak 8, arratsaldeko 19:30ean): **Antton Valverde**. Musikari donostiarrak, 78 urte dituela, ***Gaua, ausentziaren itzala*** disko bikaina argitaratu du, aktibo jarraitzen duela modu paregabean erakutsiz. Lan horrek agerian uzten du haren bertuterik onena: euskal poeta handiak dotoreziaz musikatzeko gaitasuna. Poeta horien artean bi bizkaitar daude, musikariak ibilbide osoan lagun izan dituenak: Bitoriano Gandiaga eta, batez ere, Lauaxeta. Azken horren lanekin disko oso bat kaleratu zuen 1978an, eta beti egon da bere erreperorioan. Valverdek jarduera artistiko jarraitu eta lasaiari eusten dio, berezko duen dotoretasunaz, eta disko berri honetan berritasun harrigarriak eskaintzen dizkigu. Diskoari izena eman dion Harkaitz Canoren ‘Gaua’ poema, adibidez, gaztelerara eta ingelesera itzuli da eta olerki beraren hiru bertzio sortu dira.

Antton Valverdek musikari bikainez osatutako laukotea gidatuko du kontzertu honetan, nortzuk eta **Jurdana Otxoa (biolina), Iván Carmona (biolontxelo) eta Joxan Goikoetxea (akordeoia)**. Zuzeneko emanaldian, egitura klasikoko abestien moldaketa zainduak eskainiko dizkigu laukoteak. Proposamen finari esker, Valverderen ahots goxoa eta pianoa jotzean duen sentsibiltatea gailentzen dira, hiru musikarien kalitateak bultzatuta. Arriaga Antzokiko kontzertua aukera paregabea izango da euskal kulturak eman duen musika-erreferenterik garrantzitsuenetako bat txalotu eta goraiatzeko.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus